

BISITAK ETA IBILALDIAK

Finissage

Jorge Oteiza Fundazio Museoa

Larunbata / 12.00etan

Erakusketaren azken egunak direla-eta, Asier Mendizabalekiko topaketa eta erakusketarako bisita.

Pasaporteak ¡Museatu! eta bidaiatu

Museoak eta bildumak

2018/04/20 - 2018/10/20

Bidaia bat prestatzea inoiz ez da hain erraza izan. Pasaporteak hiri eta herri berezietara txango motzak planifikatzea ahalbidetuko dizu eta arte garaikide, arte eder, arkeologia, etnografia eta pertsonaia bereziei buruzko museoetan esperientzia paregabeak bizitzeko aukera izango duzu. Anitzak eta kalitate onekoak diren bildumak eta testigantzak agertzen dituzten museo xarmangarriak. Eta hori guztia, Nafarroatik atera gabe.

Taldean edo familiarekin, bikotearekin edo bakarrik, hamahiru museo eta bilduma hauek zain dituzu haien bilduma eta jardueraz zurekin gozatzeko.

Gainera, hiru baino gehiago bisitatzen badituzu, sariak lor ditzakezu.

Pasaporteak pertsonala eta/ edo familiarra da. Doakoa da eta hamahiru zentroetan eskuratu daiteke sarreran. Erakunde bakoitzaren zigilua bisita egindakoan eskuratuko da.

Katedraleko klaustroaren lanak

Iruñeko katedrala

Igandea / 10:00, 11:00, 12:00.

Bisitak doakoak dira, eta hiru ordu hauetan egiten dira: 10:00, 11:00 eta 12:00etan. Ordubeteko iraupena dute, gutxi gorabehera. 14 urtetik gorakoak izan behar dute bisitariak, eta mugikortasun-arazorik ez izan. Oinetako lau eta erosoak eraman beharko dituzte, obrako aldamiotik ibili beharko baitute.

ERAKUSKETAK

Gamazadaren 125. urteurrena

Nafarroako Errege Artxibo Nagusia.

2018/04/02 - 2018/05/31

La Gamazada izenez ezagututako gertakari historikoen hasieraren 125. mendeurrenaren haritik, haiei buruzko dokumentuen gaineko erakusketa, formatu txikikoa, antolatu du Nafarroako Errege Artxibo Nagusiak, hilean behingo erakusketa-programaren barruan.

“Gamazadaren 125. urteurrena” apiril eta maiatzean zehar egongo da ikusgai, Nafarroako Errege Artxibo Nagusiaren egoitzan, 09:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, astelehenetik ostiralera, eta 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, asteburu eta jaiegunetan.

Makotu

Jorge Oteiza Fundazio Museoa

Erakusketa. 2018ko martxoak 22 – ekainak 3

Laguntzaileak: Nafarroako Gobernua, Nafarroako Museo Sarea eta Eguesibarko Udala

Asier Mendizabal (Ordizia, 1973) artistak, azken urteotan, Jorge Oteizaren legaturako eta haren eskultura-proiektuan sinbolikoa eraikitzeko modurako hurbilketa kritikoa proposatzen duen obra multzoa egin du. Horren bitartez zalantzan jartzen ditu modernitatearen amaieran eskultorikoa irudikatzeke mekanismoak.

Zabalik

Nafarroako liburutegia

2018/04/18 - 2018/05/31

UPNA EN ABIERTO - NUP ZABALIK

Aurkezpen ekitaldia apirilaren 18an, 19:00etan, solasaldi-bisita gidatuaren bitartez erakusketa aretoan bertan.

Erakustaldiaren ordutegia:

10:00etatik 14:30etara eta 16:30etatik 20:30etara

(Larunbatean 13:00ak arte)

HAURRENTZAKO-AISIA

Kamishibai: ipuin tradizional japoniarrak

Nafarroako Liburutegia (haurren liburutegia)

Asteazkena / 18:00etan.

Jarduera gaztelaniaz egingen da.

Kamishibai ipuin-kontakteta, kultura japoniarrari eskainia. 4 ipuin tradizional japoniar irakurri eta interpretatuko dira.

San Juan de la Cadena eskolako ikasle boluntarioek parte hartuko dute,

Kamishibaiaren Lagunen Elkarteko kide Carmen Aldamak koordinatuta.

Izenburuak:

Japoniako jai tradizionalak

Koinobori

Ohinasama

Dragoiaren malkoak

Jarduera: 3 urtetik gorakoentzat.

KONFERENTZIAK

María José Arana

Nafarroako Liburutegia

Asteartea / 18:00etan.

María José Arana: "La espiritualidad de Etty Hillesum".

"Espiritualtasunaren koloreak: tradizio espiritual desberdinetatik betetasunean bizitzeko jakinduria-gakoak" zikloa.

Helena Taberna

Nafarroako Liburutegia

Asteazkena/ 18:30ean.

Topaketak Helena Tabernarekin.

"Liburutegi zinemazaleak" zikloa amaitu da, zortzi topaketa Helena Taberna zine-

zuzendariarekin ahalbidetu dituen hainbat liburutegitan .

KONTZERTUAK

Nafarroako Orkestra Sinfonikoa

Baluarte (Areto Nagusia)

Osteguna, ostirala / 20.00etan

XIV. Abonu Kontzertua

Antolatzailea: Baluarte Fundazioa

Zuzendaria: Antoni Wit

Amaiera sakona mami handiko programaziorako. Alemaniako musikaren bi jeniok heriotzaz eta hondamenaz agertutako ikuspegiak baitira; denboran bi belaunaldiz bereziak, baina biak ere musika-tradizio beraren eta ahaltsuaren oinordeko. Richard Straussek Metamorphosen konposatu zuen hari-orkestra baterako, 1943ko urriaren 2an, Municheko Opera zaharra suntsitu zuen bonbardaketaren ondotik. Lana "Municheko dolu" egiazkoa da.

Johannes Brahms, bere aldetik, bere adiskide Robert Schumann 1856an hil ondoren hasi zen Eindeutsches Requiem konposatzen, eta ama hil zitzaionean bukatu zuen, 1865ean.

Pablo Sarasate Big Band eta Pamplona Swing.

Nafarroako Liburutegia (1. solairuko hitzaldi-aretoa)

Astelehena / 20:00etan.

#Liburutegi publikoak #Lurralde gaztea programa amaierara iritsi da.

Iñaki Rodríguez zuzendutako kontzertua.

Pablo Sarasate Musika Kontserbatorio Profesionalak lagunduko du

TAILERRAK

Ekipamenduak birpentsatuz

Nafarroako Errege Artxibo Nagusia

Jueves / 09.00etan

2º Laborategia THINK TANK

Komunikazioa funtsezko prozesu bihurtu da, gure gizartearen alor guztiak antolatzen baititu gaur egun. Kultura esparrua barne, jakina. Komunikazioaren paradigma, ordea, abiadura bizi-bizian ari da aldatzen. Informazioa kontsumitzeko gure moldean erabakigarriak dira egia-ostea, big data edo datu-trafikoa bezalako kontzeptuak. Baita globalizazioak inposatzen duen berehalakotasuna eta hedabide digitalak, batez ere sare sozialak, erabiltzeko eredu berriak. Horrek guztiak nahasmendu orokorra sortzen digu eta, beraz, beharrezkoa dugu inguruko errealitatea xehe- xehe aztertzea tresna praktiko zenbait erabiliz, ahalbidetuko digutenak begirada kritikoz hausnartzea jasotzen eta igortzen ditugun mezuei buruz.

Hizlaria: Javier Espinosa

Gatazka-irudien inguruko hausnarketak

Nafarroako Filtomteka / Huarte Zentroa

Ostirala, larunbata / 17:00etan

Hizlariak: Susana Sousa Dias, Jean Gabriel Périot, Pablo La Parra Pérez,

Pablo Gil, Mari Luz Esteban, Idoia Martín Hidalgo, Laura Ruíz Saenz y Arantza Santestebanen parte-hartzea baieztatua dago.

ZEHAR IRUDIAK. Gatazka-irudien inguruko hausnarketak, gatazka politikoen irudien zirkulazioaren inguruan hausnartzeko bilgune bat izan nahi du. Jakintza akademikoa, sortzailea eta ekintzaile izaeraren bidegurutzeetan eratzten denaren ziurtasunetik abiatzen gara; hori dela eta, espazio hibrido bat sortzea bilatzen da irudi hauek diziplina eta formatu anitzetatik aztertzeko.

[Ikerketa proiektuak garatzeko egoitza](#)

Huarte Arte Garaikideko Zentroa

2018/04/30 - 2018/09/30

Komisariotzaren inguruko ikerketa proiektuak garatzeko bi egoitza deialdi luzatzen ditu Uharte Zentroak (bata, lekuko agenteei zuzendua, eta bestea, bertakoak ez direnentzat). Helburua, praktika honen alderdiak Nafarroan zehar barreiatzea da.

[Zeharkako estetikak | Aisialdiko ekosistemak](#)

Huarte Zentroa

2018/04/21 - 2018/06/11

Egoitza artistikorako deialdia eta Uharte, Atarrabia eta Burlata udalerrien testuinguru soziala kontuan hartuko duen proiektu baten garapena.

[Toisoiaren ebasketa, escape room-ean](#)

Karlismoaren Museoan (Estella-Lizarra)

2018/05/18 - 2018/10/14

Karlismoaren Museoak dei egiten dizue parte hartzera Toisoiaren ebasketa, escape room-ean. Museoen Nazioarteko Egun eta Gauaren kariatara egingen da, 2018ko maiatzaren 18an, eta irekita egonen da 2018ko urriaren 10era arte.

ZINEMA

Trenes rigurosamente vigilados

Nafarroako Filmoteka

Asteazkena / 20.00etan

Naziek Txekoslovakia okupatu zuten garaian, Milos gazteak tren geltokian egiten du lan Hubicka andrezale, geltokiko nagusi zoro eta hipokrita Zednicek eta Zdenka telegrafista ederrarekin. Herriko trenen zuzendariak Führerak Europa goberna dezan beharrezkoak diren zenbait tren estrategiko zaintzeko agindua emango die. Enkargu hau, bere familiako gizonen zkoak ez bezala, benetako gizon bat izateko aukera gisa hartuko du Milosek. Baina arazo handi bat aurkituko du: ezin ditu bere neskalagun Masaren desioak bete. Modu honetan, ezin izango da eskatu zaion misioan buru-belarri aritu. Era berean, ezingo du frogatu momenturarte bere familiak agertu ez duen kemena duenik. Zuzendaritza: Jirí Menzel

[Acantilado](#)

Osteguna / 20.00etan

Helena Taberna nafarraren film berriena da hau. 33. Chicago Latino Film

Festival-ean parte hartu du, Austin-en ospatutako Dark Matters Feature-n Film Onenari Saria irabazi ostean. Acantilado Lucia Etxebarriaren eleberrian oinarritutako thrillerra da, sekten mundu korapilatsuan murgiltzen dena.

Luz oscura

Nafarroako Filmoteka

Ostirala / 18:00etan.

Familia bateko zenbat kidek jasaten dituzte ondorioak polizia politikoaren sareak preso politiko bat atxilotu eta gero? Nola gorpuzten da existentzia historikorik izan gabe desagertu zen norbait? Polizia politiko portugesak egindako argazkiak abiapuntua hartuta (1926-1974), “Luz oscura” filmak erakutsi nahi du zer ondorio dituzten sistema autoritarioek familia baten intimitatean, orainaldia moldekatzen duten opresio-eremuak agerian utzita aldi berean.

Aurkezpena eta solasaldia, Susana de Sousa Dias bertan egongo dela.

“Zehar irudiak: gatazka-irudien inguruko hausnarketak” mintegiaren zati izango da jarduera, eta Huarte Zentroan eta Nafarroako Filmotekan egingo da, ekainaren 1 eta 2an.

THX 1138

Nafarroako Filmoteka

Ostirala / 20:00etan.

“THX 1138” George Lucasen lehen film luzea da. 1969an egin zen, eta 1971n estreinatu. Lucasen beraren “Electronic Labyrinth THX 1138 4EB” film laburraren (1967) bertsio luzatua da. Lurpeko distopia batean dago girotuta filma, eta “Bai mundu berria” (Aldous Huxley) eta “1984” (George Orwell) liburuetan ere agertutako gaiak jorratzen ditu.